

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO AKZESITA:

*Karanbola*

Lucia Rodriguez Domeño

Argi gorria. Saltatzeagatik ez zait ezer pasatuko, ezta? Ez, behin baino gehiagotan egin dut eta.

...

Ez dut ezer entzuten, zer gertatzen ari da? Nire irratiak transmititutako musikaren taupadak sentitzen ditut, baina txistu zorrotza entzuten jarraitzen dut. Zelako buruko mina...

Momentu bat, zer da... hau? Nor dira pertsona hauek... Zergatik sentitzen naiz horrela? Zergatik dauzkat malkoak nire begietan? Zergatik tristura hau?

...

Nire izena Juno da, bai, Hera bezala baina italiarra. 21 urte ditut, Arte Ederrak ikasten ari naiz eta duela bi aste gizon bat hil nuen, auto istripu batean. Egun hartatik aurrera, oso arraro sentitzen ari naiz, bi kontzientzia banitu bezala: nirea eta beste norbaitena. Ez dakit bidaia astralak ditudan edo ero bilakatzen ari naizen. Musika entzuten dudanean memoria ezberdinak ikusten ditut, eta lehen sentitzen ez nituen sentazio anitzak sentitzen ditut. Pluto Projector abestiak hotzikara sentiarazten dit, eta ihes egiteko gogoak.

....

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO AKZESITA

Hilabete bat pasatu da eta oso amets arraroak ditut. Istripuaren eguna dela uste dut, baina nirea ez den beste kotxean nago, beste kotxea gidatzen ari naiz. Nire eskuei so egin eta ikaratzen naiz: ez dira berdinak, handiagoak baizik. Hil nuen gizonaren familiak deitu dit, nire errua ez dela esanez, eta nire bizitzarekin segitzeko, baina zerbaitek atzeraka narama. Agian nire beste kontzientzia da, ez dakit.

...

Neska batekin amets egiten dut segidan. Ezaguna egiten zait, baina ez dakit nondik. Ametsa beti berdina da, neskak zaplasteko bat ematen dit. Gainera, oihuka, hainbat gauza esaten dizkit eta atetik irteten da. Ezin ditut gauza horiek entzun, beraz, ez dakit zergatik dagoen hain haserre. Gaur amets ezberdin bat izan dut, neskarekin eskutik ibiltzen ari naiz, hondartza batean, eta neskak itsasoari irribarre egin eta olatuen erritmoan abesten du. Liluratuta uzten nau, jainkosa bat dirudi, bere ilea itsasoak eragindako haizeari esker mugitzen da eta eguzkia itsasoaren atzetik nola ezkututzen den ikusten dugu, ilargiari eta izarrei ongiatorria emanez. Gero, esnatu naiz, nire masailak eta begiak malkoz beteta, eta bularrean erruduntasun eta damu izugarria sentituz, utopia horretatik ateratzea gauzarik gogorrena balitz bezala.

...

Gaur neska hori ikusi dut, baina ez amets batean, baizik eta errealitatean. Serendipia bat bezala izan da, eta nire beste kontzientziak ihes egitera behartu nau. Kafetegi batean zegoen, eta bere begiak bizitza ez balute bezala zeuden, distirarik gabe. Nireak bezalakoak.

...

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO AKZESITA

Beste kontzientzia pikutara bidali dut eta neska berriro ikustera joan naiz. Lehengo eguneko kafetegian dago eta bere ondoan eseri naiz. Arraro begiratu dit, eta bere izena galdetu diot. Mika deitzen da, Mikaela. Kafe batera gonbidatu dut, eta kostau da baino azkenean onartu du. Hitz egiten egon gara. Bera ere arte ederrak ikasten ari da, baina bi urte nagusiagoa da, 23 ditu. Bere begiek distirarik gabe segitzen dute.

...

Mika eta biok lagunak gara, primeran ulertzen dugu elkar. Ez dut berarekin berriro amets egin, eta nire beste kontzientzia lasaiago egon da, batez ere Mikak irribarre egiten duenean. Bere begiak gutxinaka distira eta kolorea berreskuratzen ari dira, eta horrek izugarrizko euforia sortzen dit, eta beste kontzientziari ere bai.

...

Mikak abesti hori abestu du gaur, Pluto Projector, eta hotzikara sentiarazi dit berriro, baina oraingoan hotzikara ona izan da. Itsasora joatea eskatu diot, baina ezetz esan dit, itsasoa ez zaiola gustatzen. Nire beste kontzientzia errudun sentitu da. Uste dut lehenagotik Mika ezagutzen zuela, agian beste bizitza batean edo. Gau hortan Mikarekin amets egin dut berriro, itsasoaren amets utopiko hori. Hala ere, kasu honetan Mikak azkeneko momentuan barkamena eskatu dit. Zergatia galdetzen saiatu naiz, baina ez dut erantzunik jaso.

...

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO AKZESITA

Uste dut... kontzientzia hau nor den badakidala... Mikak zerbait kontatu dit, eta dena "klik" egin du. Istripu hartan hil zen gizona... Mikaren bikote ohia zen. Bera hil baino lehen utzi zuten, baina egun horretan bere etxera gidatzen ari zen, barkamena eskatzeko eta berarekin bueltatzeko. Horregatik, badirudi edan zuela eta ez zuela nire kotxea ikusi. Kontzientzia hau gizon horrena da...

...

Ez naiz ausartu egia esatera, eta Mikak zeozer gaizki doala ikusten du. Berak ez daki oraindik ni naizela bere bikote ohia hil zuena. Kontzientzia horrekin hitz egiten saiatu naiz, baina ez dit erantzuten. Amets arraroak izateari ere utzi diot.

–Juno!

–Zer...?

–Juno, gauza bat egin behar duzu, nigatik.

–Baina... Nor zara?

–Oliver da nire izena, istripuan hil zen gizona.

–Nola...?

–Mika lagundu behar duzu. Nik ez nuen lortu. Ikusi zaituztet, elkarri zoriona ekartzen diozue... Mesedez, ez egin ni bezala...

–Baina nola egin dezaket hori? Oliver, lagundu nazazu mesedez!

–Denbora agortu zait... zorte on.

Eta isiltasuna egin zen nire buruan.

...

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO AKZESITA

Mika ospitaleratu dute. Kanean zebilen, konortea galdu eta erortzean bere burua jo du. Korrika joan naiz ikustera, nire bihotzaren taupadak soilik entzun ditzaket, eta medikuak esandakoa ez dut ulertu. Gelara sartu eta hor dago, leihoari so eginez begirada itzalita duelarik. Isiltasun deserosoa dago airean. Begietara begiratu eta irribarre faltsu bat jartzen saiatu da. Duela hiru hilabete sinetsiko nuen, baina orain oso ongi ezagutzen dudanez, badakit ez dela benetakoa. Ez diot ezer galdetu, isiltasunean egon gara afaria ekarri dioten arte. Gau osoa berarekin gelditu naiz. Ez naiz klasera joan. Egun batzuk egon beharko da ospitalean eta ez dut bakarrik utziko, bestela zerbait txarra gertatuko dela susmatzen dut.

...

Hiru egun pasatu dira eta Mikari bere etxera bueltatzen laguntzen ari natzaio. Egun hauetan soilik elkarrizketa laburrak izan ditugu, oso isilik egon izan da. Mika normalean ez da horrela, alaia eta hiztuna izaten baita. Bere logelara joaten lagundu dut. Ohean etzanda begiratu dit eta berarekin gelditzeko eskatu dit. Bere ondoan etzanda nago, eta soilik bien arnasa entzun daiteke. Eskua hartu dit, eta dardarka dago. Negarrez hasi da, eta lasaitzen saiatu naiz.

–Juno... Oliverren gurasoak etorri ziren lehengo egunean...

Izerdi hotzez hasi naiz, dardarka.

–Bai? Eta zer moduz?

Nire ahotsean urduritasuna antzematen da, Oliverren izena esaten duen bakoitzean bezala.

–Ongi...

–Pozten naiz ba.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO AKZESITA

–Juno, bion argazki bat ikustean zerbait esan zidaten.

Arnasa guztiz geldiarazi zait, eta Mikak nire eskua hartu du.

–Badakit zer gertatu zen gau hartan... Oliver hil zenean...

–Mika, barkatu. Ez nekien nola aitortu eta beti hurrengorako uzten nuen, ez nuen nahi trauma hori zuretzat okertzea, eta ez nuen nahi zu ni gorrotatzea... Mikak nire eskua estutu du.

–Mila esker Juno. Nire bizitza salbatu duzu. Oliver hil zenean, ez nekien nola sentitu, istripua izan zuenean ni ikustera zetorrela jakinda, errudun sentitzen nintzen. Baina zu etorri zinen eta nire mundua hankaz gora jarri zenuen, eta aurrera egiten irakatsi didazu. Mila esker, bihotzez.

Norbait sentitu dut logelan ni eta Mikaz gain. Aterantz begiratzean Oliver ikusi dut, irribarre batekin.

–Lortu duzu Juno, mila esker.